

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan lan egiten duen pertsona kopurua %4,5 gehitu zen 2007. urtean

Eraikuntzako sektorea aritu zen ongien, %6,1, baina zerbitzuek hartzen dute enplegurik gehien, guztirakoaren %66

2007an, egoitza Euskal AEn duten enpresek 199.310 establezimendutan (lantegiak, dendak, bulegoak ...) gauzatu dute jarduera, eta 919.370 laguni eman diete lana, aurreko urtean baino %4,5 gehiago, Eustaten datuen arabera. 2002tik enpleguak 130.707 lagun irabazi ditu Euskadin eta urteko batez besteko %3,1eko tasa metatura iritsi da.

Establezimenduen guztizko kopurua %7,0 hazi da 2006aren aldean. Gehikuntza hori Eraikuntzaren sektorean kontzentratu da, %10,3ko hazkundeaz eta Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak sektorean, %9,5.

Jarduera-adar guztietan izan da enplegu-hazkundera. Hazkunde-tasarik handiena Bestelako zerbitzu-jardueretan izan da, %6,4; Eraikuntza dator ondoren, %6,1. Industria eta Energian, berriz, hazkundera %0,2 besterik ez da.

Establezimenduak eta enplegua jarduera-adarka. 2007

	Euskal AE				Araba			
	Kop.	07/06	Enplegua	07/06	Kop.	07/06	Enplegua	07/06
Guztira	199.310	7,0	919.370	4,5	26.285	8,7	147.541	4,0
Industria eta energia	15.211	3,0	222.781	0,2	2.524	2,9	45.714	-0,3
Eraikuntza	29.826	10,3	92.409	6,1	4.186	14,1	14.041	9,8
Merkataritza eta konpon.	50.702	5,8	146.841	5,7	6.313	7,1	21.595	7,6
Ostalaritza	15.170	6,3	48.223	5,7	2.128	10,3	6.746	7,6
Garraioa eta komunik.	15.795	4,2	52.465	5,2	1.974	7,3	6.928	7,8
Bankuak, aseg. eta enpres.zer.	43.688	9,5	149.874	5,7	5.362	10,7	19.482	6,0
Bestelako zerbitzu-jard.	28.918	6,0	206.777	6,4	3.798	7,3	33.035	2,8

	Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	07/06	Enplegua	07/06	Kop.	07/06	Enplegua	07/06
Guztira	101.900	6,3	464.483	4,3	71.125	7,3	307.346	4,9
Industria eta energia	6.774	2,6	89.410	0,3	5.913	3,5	87.657	0,3
Eraikuntza	14.158	9,7	50.174	4,2	11.482	9,7	28.194	8,0
Merkataritza eta konpon.	26.801	5,3	77.226	4,7	17.588	6,2	48.020	6,3
Ostalaritza	8.265	4,5	24.964	4,3	4.777	7,9	16.513	7,1
Garraioa eta komunik.	8.371	3,4	28.733	5,0	5.450	4,4	16.804	4,6
Bankuak, aseg. eta enpres.zer.	23.219	8,5	86.729	3,5	15.107	10,8	43.663	10,2
Bestelako zerbitzu-jard.	14.312	5,9	107.247	8,2	10.808	5,6	66.495	5,4

Iturria: Eustat.

Herrialde-eremuka, Gipuzkoan erkidegoko batez bestekoaren gainetik ibili da enplegu-sortzea (%4,9ko tasa); Bizkaian %4,3 eta Araban %4,0. Gipuzkoan "Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak" sektorea da liderra enplegu-hazkunderan, %10,2ko tasarekin; euskal batez bestekoaren gainetik daude, baita ere, Eraikuntza (%8,0), Ostalaritza (%7,1) eta Merkataritza eta Konponketa (%6,3). Araban Eraikuntzako hazkunde-tasa nabarmentzen da (%9,8), eta negatiboa da Industria eta Energian (%-0,3). Bizkaiak euskal batez bestekoaren gaineko tasa du Bestelako zerbitzu-jardueretan (%8,2), gainerako guztietan azpitik dagoelarik, batez ere Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak sektorean (%3,5).

Gidazerrendan jasotako langileen %65,7 *zerbitzuen* sektorean dago, eta haren atzetik, *industrian* (%24,2) eta *eraikuntzan* (%10,1). Industriaren egiturazko enplegu-maila handiena, herrialdeka, Araban dago oraindik ere, herrialde horretan landun-kopuruaren %31ra iristen baita, eta haren atzetik, Gipuzkoan (%28,5) eta, Bizkaian (%19,2). Herrialde hau lehen tokian dago, *zerbitzu-sektoreko* (%69,9) eta *eraikuntzako* (%10,8) landun-kopuruaren ehunekoari dagokionez.

Biztanleria landun kopururik handiena daukan zerbitzu-adarra *bestelako zerbitzu-jarduerak* da, biztanleria landunaren %22,5 hartzen baitu (206.777 lagun). Haren atzetik, *bankuak*, *aseguruak* eta *enpresa-zerbitzuak* dago, 149.874 lagunekin; eta, azkenik, *merkataritza eta konponketa* adarra 146.841 lagunekin; bi kasuetan guztizko enpleguaren %16 inguru.

Enpleguaren tamainaren arabera egiturak lehengoan dirau, azken urteetan bezala. Apenas 2.365 establezimenduk -guztirakoaren %1,2- dauzkaten 50 enplegu edo gehiago; hauen enplegu kopurua 341.232 da, guztirakoaren %37,1. 149.278 establezimendu, guztizkoaren ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,3 bakarrik hartzen dute.

ENPRESAK

Jarduera Euskal AERen eremuan gauzatzen duten enpresen kopurua %7,3 igo da 2007. urtean, 180.475 enpresa aktibo zenbatu baitira urte horretan. Lehen sektorekoak ez dira hemen kontatu. Enpresen %97,6k gure erkidegoaren lurraldean dute egoitza, eta 4.308k Estatuko gainerakoetan; azken enpresa horiek 100.853 laguni ematen diete enplegua, guztizkoaren %11ri.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,1 okupatu enpresako, eta 4,6 establezimenduko. Nortasun juridikoaren arabera azterketan alde nabarmenak daude. Titularra Pertsona Fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 10,4 eta 8,6 okupatu dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Jarduerari ekin dioten eta utzi dioten establezimenduen arteko saldo garbia 13.004 da, 2006an baino 8.229 gehiago. Enpleguaren sortze garbian 22.599 landun gehiago esan nahi du, establezimendu berriek enplegu-ekarpen handiagoa egin baitute itxi diren establezimenduen galeren aldean. Euren jarduerekin jarraitzen duten establezimenduen artean ere enplegua hazi egin da eta 16.769 lagun gehiago dituzte. Emaizta orokor gisa, jarduera ekonomikoak 39.368 lanpostu sortu ditu.

Errotaziorik handiena Pertsona Fisikoaren formula juridikoarekin sortutako establezimenduetan gertatzen da: sarreren %57,5 eta irteeren %69,3. Kolektibo honen guztizko saldoak +6.501 establezimendu eta +10.185 enplegu dira; izan ere, berriak gehiago dira utzi diotenak eta beste formula juridiko batera pasa direnak baino.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2007

	Saldo orokor. (2007-2006)	
	Kop.	Enplegua
Jardueraka		
Guztira	13.004	39.368
Industria eta energia	443	389
Eraikuntza	2.787	5.347
Merkataritza eta konponketa	2.791	7.861
Ostalaritza	903	2.612
Garraioa eta komunikabideak	641	2.614
Bankuak, aseguruak eta enpres. z	3.808	8.106
Bestelako zerbitzu-jarduerak	1.631	12.439
Lege-nortasunka		
Guztira	13.004	39.368
Pertsona fisikoa	6.501	10.185
Baltzu anonimoa	123	-3.931
Erantzuk. mugatuko baltzua	5.126	21.622
Bestelako baltzu eta elkart.	1.291	5.743
Bestelako lege-erak	-37	5.749

Iturria: Eustat.

Azken urteotako dinamismoarekin jarraituz, 2007. urtean, Sozietate mugatuek 5.126 establezimenduko saldo positibo orokorra eta 21.622 lanpostuko gehikuntza garbia izan dute. Horrela, 261.281 lanpostura iritsi da, guztien %28,4. Sozietate anonimoen establezimenduetan, urte honetan 123 unitate gehiago dauzkagu; bestalde, beren enplegu saldo garbia negatiboa da, -3.931 lanpostu.

Demografia jardueraren arabera aztertzean, *merkataritza eta konponketa* (sarrera guztien %22,5 eta irteera guztien %24,6); *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak* (sarrera guztien %26,2 eta irteera guztien %19,5) eta *eraikuntza* (sarreraren %22,1 eta irteeren %23,1) jarduera-adarrak nabarmentzen dira.

Enplegu garbiari dagokionez, sortzerik handiena *bestelako zerbitzu-jarduerak* adarrean gertatu da, enplegu berri guztien %31,6 ekarri ditu. Egiten duen ekarpen hori dezente handiagoa da sektore guztien aldean duen pisu espezifikoari (%22,5) dagokiona baino. Bigarren *bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak* dugu, %20,6rekin eta *merkataritza eta konponketa*, %20,0.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik sarrera guztien %87,9 eta irteera guztien %88,1 hartu ditu. Establezimendu mota hau dinamikoena da enplegu orokorra sortzen: 13.560 enplegu garbi. Batez ere sortzen diren establezimenduetako enpleguari zor zaio.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Federico Gutiérrez

Tlf:+34-945-01 75 43 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es